

URARTE

— ARABA / ÁLAVA —

Urarte herria Arabako hiriburutik 27 km hegoaldera dago. Jeronimo Aznar gotzainaren 1257ko gutunean dagoeneko ageri da Urarte izenez aipatuta, eta han esaten denez, herri zaharra zen. Emilianotarren nominan ere azaltzen da aipatuta, *Varte* izenez, eta Donemiliagako monasterioari goldeburdina bat ordaintzen ziola zehazten da. 1556an Gaunatarren jaurerri moduan ageri da Urarte; hogeita hamar auzotar zituen orduan, eta kopuru berekin jarraitu zuen mendearen amaiera arte. Urte horretan bertan, Martin Gil lizentziatuak egindako bisitan zehaztu zuenez, herriko parrokiak bi onuradun zituen, eta oso primizia garrantzitsua. Datu horiek guztiak *Gasteizko Elizbarrutiko Monumentuen Katalogoak* daude bilduta. Urarte Uda ibaiaren ertzean dago, Burgosko Trebiñuko lurren mugetatik oso gertu. Gaur egun, Bernedoko udalerriaren barruan dago Urarte, Kanpezuko-Arabako Mendialdea kuadrillaren parte da.

La localidad de Urarte se encuentra 27 km al sur de la capital alavesa. En la carta del obispo don Jerónimo Aznar, de 1257, ya se cita como Urarte, diciendo que es pueblo viejo. También figura en la nómina emilianense con el nombre de *Varte*, donde consta que aportaba una reja, contribuyendo así con el monasterio de San Millán. En 1556 Urarte figuraba como señorío de los Gaunas y contaba con treinta vecinos, cifra que se mantenía a finales de siglo. En la visita pastoral que hace ese mismo año el licenciado Martín Gil, consta que la parroquia estaba servida por dos beneficiados y contaba con una primicia muy respetable. Son datos que recogemos del *Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria*. Urarte se halla en la ribera del río Ayuda, muy cercana al límite con las tierras burgalesas de Treviño. En la actualidad esta localidad pertenece al municipio de Bernedo y forma parte de la cuadrilla de Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezuko-Arabako Mendialdea.




Jasokundeko Andre Maria eliza Iglesia de Nuestra Señora de la Asunción

HERRI ERDIAN DAGO, eta eremu zabal bat du inguruan. Beraz, aukera dago eraikina bere osotasunean ikusteko, baita egiteko erabili ziren materialen kalitate bikainei erreparatzeko ere. Hegoaldeko aldean, atariaren barruan, portada erromanikoa dago, irtenda dagoen horma batean, marko baten antzera, eta hegaletan zutabe fin eta lirainak ditu mugatzen. Goiko partean bost harbururen gainean jarritako erlaitz simple batek burutzen du. Harburu horietako bik landare-motiboak dituzte, eta beste hirurek, buruak: bata animalia batena da, beste bat antropomorfoa eta buruko kizkurra du, eta hirugarrena maskaroi itxurakoa, hortzak erakusten.

SE ENCUENTRA situada en el centro del pueblo, con un amplio espacio a su alrededor que permite, además de su contemplación, apreciar la magnífica calidad de los materiales con que fue realizada. En el lado del mediodía, dentro del pórtico, se encuentra la portada románica, abierta sobre un muro en resalte, a modo de marco, con finas y esbeltas columnas en los extremos, que la delimitan. En la parte superior se remata con una sencilla cornisa apoyada en cinco canecillos. Dos de ellos decorados con motivos vegetales y tres con cabezas: una de animal, otra antropomorfa con tocado rizado y la tercera a modo de mascarón mostrando los dientes.

Burualdea / Cabecera





Portadak arku zorrotz batekin erremataturik dagoen bao bat du, eta, horren gainean, baketoi fineko arkibolta batzuk ageri dira, landare motibo simplez apainduta dauden beste batzuekin txandaka. Beranduko egikera du guztia. Arkibolta batean ageri diren pertsonaietako batzuek tunikak dituzte jantzita, eta eskuetan liburu bat dute; beste batzuen gorputzak hosto txikiak edo hegoak dituztela ematen du. Arkibolta horietako giltzarrieta bakoitzean burutxo antropomorfoak daude, batzuk oso higatuta. Lau petaloko loren apainduta dagoen deskarga-arkuak burutzen du multzo osoa, eta, giltzarri horren gainean, emakumezko baten burutxoan dago, orrazkera kizkurrairekin eta burukoa kokospean lotuta. Horren gainean, belarri zorrotzeko animalia baten burua dago, aho handia zabalik duela, eta hortzak erakusten ditu.

Eusteko elementu moduan, portadako baoaren bi aldeetara nahiko garatuta dauden zango batzuk daude, eta sei zutabe-pare, kapitel eta guzti. Kapitel horietan, arku trilobulatu batzuen azpian, gizakien eta animalien irudi txiki batzuk ageri dira, aurrez jarrita, armariari eusten diotenen antzera. Ezkerreko aldean, lehoi hegodun bat dago, San Pedro giltzekin eta beste animalia hegodun bat. Zezen bat izan liteke, eta lehoiarekin batera, Tetramorfoarekin lotuta egongo litzateke. Ezkerreko zangoan, hosto mamiatsu handiak ageri dira. Arku multzo tribulatuaren azpian


La portada presenta un vano rematado por un arco ligeramente apuntado, sobre el que voltean arquivoltas de finos baquetones, alternando con otras decoradas con motivos vegetales muy sencillos. Todo ello es de factura muy tardía. En una de las arquivoltas aparecen personajes ataviados con túnica, que portan un libro en sus manos, y otros cuyo cuerpo parece compuesto de pequeñas hojas o con alas. En cada una de las claves de estas arquivoltas vemos representadas pequeñas cabecitas antropomorfas, algunas muy desgastadas. Un sobrearco, decorado con flores de cuatro pétalos, remata el conjunto, y sobre su clave encontramos también una cabecita de mujer con tocado de rizo y barbuquejo. Sobre ella, la testa de un animal de orejas puntiagudas, con una gran boca abierta y mostrando los dientes.

Como elementos sustentantes encontramos, a ambos lados del vano de la portada, unas jambas bastante desarrolladas y seis pares de columnas con sus capiteles. En éstos se representan, bajo unas arquerías trilobuladas, pequeñas figuras humanas y de animales, dispuestas en posición muy frontal, a modo de tenantes. En el lado izquierdo se aprecia un león rampante con alas, San Pedro con las llaves y un animal alado, que bien podría ser un toro que, junto con el león, estaría relacionado con el Tetramorfos. En la jamba izquierda se decoraron grandes hojas carnosas. Bajo




Portada

Portada



Portada. Kapitelak

Portada. Capiteles



ageri den pertsonaiak burua estalita du, mantu bat darama, eta, eskuetan, X itxurako gurutze txiki bat duen paramentuaren sakoneko zirkulu itxurako apaindura, *tondo* deritzona, dauka.

Portadaren eskuineko aldean, lehenengo eta behin, hosto mamitsuko zangoa dago, eta horien artean pertsonai bat, biluzik, esku bakoitzarekin suge bat oratzen dio la ematen du. Lehenengo hiru kapiteletan irudi hegodunak ageri dira. Lehenengo kapiteleko irudiak bularra biluzik darama, eta besoekin bi arrain handiri eusten ari den sirena baten irudia izan liteke. Ondoren, gizonezko bat dago, tunika jantzita eta eskuetan liburu bat hartuta. Hirugarrenean, beste sirena bat dago, bularra biluzik eta eskuekin bi arraini heltzen, baina oraingoan gizonezkoa da, eta bizarre darama. Hurrengo hiru kapitelek landareen motiboak eta irudizkoak dituzte. Horietako batean, buru txiki bat dago adats laburrarekin eta ilea bekokian, landareen artean. Beste bietan, gizonezko bat eta emakumezko bat, burukoa kokospean lotuta, biek daramate tunika jantzita, eta liburu bat dute eskuetan. Beste erliebe batzuk ere badaude irteten den horma horretan, baina oso higatuta. Kapitelen gaintetik horma zeharkatzen duen inposta-lerro molduratua, berriz, jarraitua da; dena dela, tarteka sartu eta irten egiten da, horietako bakoitzari independentzia eman nahian.

Hegoaldeko horma urratzen, leihate bat dago presbiterio aldean, eta bi, burualdean, oso lirainak dira, eta estilo berria iragartzen duten trazuak dituzte. Apaintze-ko erabili diren elementuak, ordea, erromanikokoak dira huts-hutsean. Arkua zorrotza dute, eta horren gainean hiru baketoi liso eta fin, baoaren bi aldeetarantz datozenak gero, zutabeak balira bezala. Zutabeon fustea burutzen, hosto mamitsu handiko kapitelak daude ezkerreko partean. Eskuineko partean, berriz, arrano bat dago harrapa-

la arquería trilobulada encontramos un personaje con la cabeza cubierta, un manto y un tondo con una pequeña cruz en aspa entre las manos.

En el lado derecho de la portada encontramos, en primer lugar, la jamba con hojas carnosas, y entre ellas un personaje desnudo que parece sujetar una serpiente con cada mano. Los tres primeros capiteles representan figuras aladas. La figura del primer capitel lleva el torso desnudo y podría ser la representación de una sirena que sujetaba con los brazos dos grandes peces. Le sigue un hombre que visiblemente lleva túnica y sostiene un libro entre las manos. En el tercero se repite el tema de la sirena, con el torso desnudo y los peces sujetos con las manos, pero en este caso es un varón, ya que lleva barba. Los tres capiteles siguientes llevan motivos vegetales y figurados. En uno de ellos, una pequeña cabeza con melena y flequillo asoma entre la vegetación, mientras que en los otros dos encontramos a un hombre y una mujer con tocado rizado y barbuejo, ambos con túnica y un libro entre las manos. Otros relieves muy deteriorados se prolongan sobre el muro en resalte, mientras que la línea de imposta, moldurada, recorre el muro sobre los capiteles de forma continua, aunque entrando y saliendo en su recorrido, intentando dar independencia a cada uno de ellos.

Rasgando el muro sur hay un ventanal en la zona del presbiterio y dos en la cabecera, muy esbeltos, de líneas que nos hablan del paso del tiempo y anuncian ya un nuevo estilo. Sin embargo, los elementos ornamentales siguen conservando la temática puramente románica. Tienen el arco apuntado, sobre el que voltean tres finos baquetones lisos, que descienden por ambos lados del vano, a modo de columnas, cuyos fustes se rematan con capiteles de motivos vegetales de grandes hojas carnosas, en el lado

kin baten eta bi giza bururen gainean. Beste leihate batean, eskuinean, irudizko motiboak dituzten bi kapitel daude: batek akrobata dela adierazten du, eta bestea, dama bat, burukoa kokospean lotuta daramala. Horiek guztiak erre-matatzenten deskarga-arku bat dago, erliebe nabarmena du-ten hosto kuadrifoliatuko lore handiz apaingduta.

Iparreko horman sartuta, presbiterioaren aldean, lau harburu erromaniko gorde dira: bata lisoa da eta profil ahurra du alakan, beste hirurek pertsonaiak dituzte.

Barrualdea eremu bakar bat da, estilo gotikoko, eta garaipen-arkuko kapiteletan bakarrik ematen du denborak ez duela aurrera egin; apaintzeko motiboak erromaniakoaren gustu eta tradiziokoak dira: landareen gaia ageri da, eta tartetik buru txikiak azaltzen dira.

Testua eta argazkiak: RHA

izquierdo, mientras que, en los tres del lado derecho, encontramos un águila sobre una presa y dos cabezas humanas, una de ellas con gran expresividad. En otro ventanal, en el lado derecho, encontramos dos capiteles figurados: uno representa a un saltimbanqui y el otro a una dama con tocado de barbuquejo. Se rematan todos ellos con un sobrearco decorado con grandes flores de hojas cuadrifoliadas de pronunciado relieve.

En el muro norte se conservan incrustados, en la zona del presbiterio, cuatro canecillos románicos, uno liso, con el perfil cóncavo en bisel, y tres figurados, con personajes.

El interior es un espacio único, de estilo claramente gótico, en el que solamente los capiteles del arco triunfal presentan motivos ornamentales que se resisten a avanzar en el tiempo, aferrándose al gusto y a la tradición románicos, con temática vegetal entre la que asoman pequeñas cabezas.

Texto y fotos: RHA

Bibliografía / Bibliografía

LABORDA YNEVA, J., 2003, pp. 176-181; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 56; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1987, p. 16; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1988a, pp. 482-486; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1968, p. 222, fig. 254-256.

Larrauriko Andre Maria baseliza Ermita de Nuestra Señora de Larrauri

LARRAURI ANDRE MARIA BASELIZA Urartetik kilometro batera dago, muino txiki baten gainean eta zelaiz Lingurutatua. Han egongo zen, sasoi batean, Larrauri izeneko lekuaren tenplu zaharra (gaur egun desagertuta dago). Eraikina bakartuta dago, eta hara hurbiltzen den bisitariak inguru eder eta bikainaz gozatzeko aukera du, eta denboraren joanak tenpluan zizelkaturiko historia bertatik bertara ikusteko parada.

Tenpluak gorputz angeluzuzena du kanpoaldetik, eta, bertan, bi zona ageri dira oso ondo bereizita: bata apur bat laburragoa eta estuagoa da, eta absidearen eta presbiterioaren zatiari dagokio; bestea, mendebalderago dagoeña, nabeari dagokio. Lehenengo zatian, hormak harlandu bikainez daude eginda, eta teilatuaren hegalarri eusten dion erlaitzaren azpian, Erdi Aroko harburu ilara bat gorde du, iparreko horman. Harburuok lisoak eta profil ahurrekoak dira, eta erliebeak ateratzeko saioren bat ere antzeman daiteke batzuetan. Burualde zuzenean leihate hormatu bat dago, oso altu jarrita. Bertan, deskarga-arkuaren zati bat

A ERMITA DE NUESTRA SEÑORA DE LARRAURI, situada a un kilómetro de la localidad de Urarte, se encuentra sobre una loma y rodeada de campo, donde debió de estar el antiguo templo parroquial del lugar de Larrauri, hoy desaparecido. La soledad que rodea al edificio reclama la atención del visitante que, al acercarse a él, además de gozar de un bonito entorno, puede admirar un templo en el que el paso del tiempo ha ido dejando las huellas que han conformado su historia.

El exterior del templo nos muestra un volumen rectangular en el que se aprecian dos zonas claramente diferenciadas: una, ligeramente más corta y estrecha, corresponde con el tramo del ábside y el presbiterio, y otra, más occidental, corresponde a la nave. En la primera, los muros han sido realizados con buenos sillares y, bajo la cornisa en la que se apoya el alero del tejado, conservan una hilera de canecillos medievales, lisos y de perfil cóncavo, en el muro norte, con tímidos intentos de relieves en algunos de ellos. En la cabecera, recta, encontramos un ventanal

ikusten da, ertzean alaka duela eta bola-erdiz apainduta. Nabearekin bat datorren zatian, harlangaitzezko harria erabili da horma egiteko, eta, tarteka, zati erromaniko batzuk ere aurki ditzakegu: baketoien arrastoak eta zutabe zati bat –fuste lisokoa, eta goiko ertzean boluta bat eta akanto lirainak dituen kapitel polit batekin burututa–; duadarik ez dago, jatorriz hor zegoen tenpluaren portadakoak direla.

Barruko eremuak kanpotik deskribatu ditugun bi esparruak islatzen ditu, baina oraindik argiago. Presbiterioak burualde zuzena du, eta nabea baino estuagoa da. Nabea hiru zatitan dago banatuta parpain-arku simple batzuen bidez; gaur egun, arku deprimítutzat har ditzakegu, erdi-puntua galdu egin dute eta. Auzotarrek jarritako metalzko tirante batzuek iparretik hegora zeharkatzen dute nabea, hormak ez daitezten gehiago zabaldu. Erdi-puntuko garaipen-arkua tolestua da eta ertz bizian egindakoa, eta kontra-horma sendo batekin eraturiko paretan behera dator, barrualderantz. Tenpluaren barruko hormak platabanda batek zeharkatzen ditu, eta multzo osoa estaltzen duen kanoi-gangaren hasiera adierazten du.

tapiado y colocado a un nivel muy alto. En él se puede apreciar una parte del sobrearco, con la arista rematada en bisel y decorada con medias bolas. En la parte correspondiente con el tramo de la nave, el material utilizado para sus muros es piedra de mampostería, entre la que podemos encontrar algunos fragmentos románicos: restos de baquetones y un trozo de columna –con el fuste liso y rematado con un bonito capitel de estilizados acantos y una voluta en el ángulo superior–, sin duda procedentes de la portada del primitivo templo.

El espacio interior refleja las dos zonas descritas en el exterior, pero de forma más pronunciada. El presbiterio, con la cabecera recta, es más estrecho que la nave. La nave está dividida en tres tramos por sencillos arcos fajones, que hoy podemos calificar como arcos deprimidos, ya que han perdido el medio punto. Unos tirantes metálicos, colocados por los vecinos, atraviesan la nave de Norte a Sur, en un intento de que sus muros no sigan cediendo. El arco triunfal de medio punto, doblado y en arista viva, baja a lo largo del muro formando un robusto contrafuerte hacia el interior, con un pronunciado derrame. Una platabanda re-



Ikuspegia begoaldetik

Vista desde el lado sur



Hegoaldeko horman txertatutako kapitela

Capitel incrustado en el muro sur

Presbiterioaren aldean, eskuineko partean, horma-hobi bat dago, tenplu errománikoetan izaten diren albo-mahaitxoen modukoa. Erdi-puntuko arku bat da, eta baktetoi fin batez dago burututa. Horren kidea, eta ezkerraldean dagoen albo-mahaitxoa, horman estu sartuta daude. Kareztagarren azpian pintura gorriaren arrastoak ikus daitezke, erretaularen atzean dauden modukoak.

Testua eta argazkiak: RHA

corre los muros en el interior del templo y marca el inicio de la bóveda de cañón con que se cubre todo el conjunto.

En la zona del presbiterio, en el lado derecho, un pequeño nicho recuerda las credencias de los templos románicos. Es un arco de medio punto rematado con un fino baquetón. Posiblemente su compañero, así como la credencia del lado izquierdo, se encuentren embutidos en el muro, que en algunas zonas suena a hueco. Bajo el encalado se aprecian restos de pintura roja, como en las líneas que hay detrás del retablo.

Texto y fotos: RHA

Bibliografía / Bibliografía

LABORDA YNEVA, J., 2003, pp. 176-181; LÓPEZ DE GUERÉNU, G., 1962, p. 90; PORTILLA VITORIA, M. J. et alii, 1968, pp. 224-225.